


# Goi-mendiko larreetan, mendi-txirta

Migel Mari Elozegi\*

Mendi-txirta lumaje arrea, eta gorpuzkera liraina duen intsektujalea dugu.



Banaketa

## FITXA TEKNIKOA

### Mendi-txirta

<b>Espezia:</b>	<i>Anthus spinoletta spinoletta</i>
<b>Familia:</b>	motazilidoak
<b>Ordena:</b>	paseriformeak
<b>Klasea:</b>	hegaztiak

**O**rain arte ezagutu ditudan ornitologia eta hegaztiei zaleztutako guztiek badute “txori arreena” dei geniezaiokeen nolabaiteko arazotxo. Pertsona hauek, artikularen idazlea barne, harrapari edota kolore

deigarriko hegazti gehienak distantzia luzeetara ezagutu ditzaketen arren, zailtasun askotxo dituzte paseriforme arreak sailkatzeko. Arazo horren arrazoia noski, ulerterraza da. Espezie ezberdinetakoak diren arren, kolore eta tamainaz antzekoak diren zenbait txori daude. Besteak beste, txoriandereak, kutturliok, pirripioa, hegazabala, tuntuak, txolarreak eta txirtak sar litezke “txori arreen” arazoa sor dezaketen hegaztien taldean. Ondorioz, eta beste edozein animalia-espezie identifikatu nahi dugunean baino gehiago, beste ezagurri batzuetan erreparatu behar da hegazti hauek sailkatu ahal izateko. Hala nola, portaera,

kantua, habitat-a, urte-sasoia, eta abar.

Lehen begiradan mendi-txirta lumaje deigarrikeri ageri ez duen txori arrea dugu. Itxura lirainekoa da eta isatsa luze samarra du. Espezie honen barruan bi subspezie bereizten dira: kostakoa (*Anthus spinoletta petrosus*) eta mendikoa (*Anthus spinoletta spinoletta*). Euskal Herrian bigarrena soilik ageri da. Beraz, hementxe doa espezie hau ezagutzeko lehen abiapuntua: hau ez dela nonahi agertzen den animalia horietakoa. Izenak adierazten duen bezala, mendi-txirta mendian bizi da, goiko larre garbietan. Belar motza eta zuhaitzik gabeko bizilekuak ditu gustukoak eta mendi harritsu eta otadietan ere topa dezakegu. Udaberria eta udazkenean bitartean leku hauetan ikus badaiteke ere, negu aldera, goitik behera jaisten da toki epeltxeagoen bila eta hezeguneen inguruan eta kostaldean agertzen da. Ez du beraz migratzeko joera handirik, baina aditu batzuek migratzaile partzialtzat hartzen dute.

ladanik aipatu denez, paseriforme honek ez du kolore deigarrikeri. Deigarritzat har daitekeen

Neguan, mendi-txirtak bularra arrea izaten du.





kolore bakarria isatsaren bi aldeetako lumek dutena izan daiteke, hauek zuriak baitira. Gainerakoan, eta bai arrengean zein emeengan, mimetizatzeko bikainak diren kolore arre eta grisak dira nagusi. Bekaina zuriska da, sabela eta azpialdeak bezala. Bizkarra, berriz, arre argi eta gris bitartekoa. Bularraldea zuriska eta kumatze-garaian arrosa-arreska izaten da. Negu aldean ordea, bularrarean arrasto arreak izaten ditu. Agian emandako datu hauek ez dira aski beste txirta espezieetatik bereizteko baina mendi-txirta beste generokideak baina handixeagoa da, 16-17 cm-koa eta 21-30 gramoko pisua hartzen du. Mokoia ere, luzexeagoa du eta iluna. Bereizgarriak garbiena izan daitekeena hanken kolorea da, beste txirtetan argia den bitartean, espezie honetan iluna izaten baita. Guk iziturik ihesi doan 16 cm-ko txori bati hanken kolorea ikustea ia ezinezkoa dela eta horrekin ezin dela bereiztu pentsatzen ari zaren horri, arrazoi guztia eman behar dizugu. Dena den, hurrengo ezauzgarriak gehituta errazago ezagutuko dugu txori hau.

Mendi-txirtaren ohiko kantua ("tsiip" antzeko deia izaten da) ez du beste txirtak adinako doinurik. Motazilido honen ezteikantua, berriz, beste hegazti batzuetan bezala, entzuteko politaz gain ikusgarria da. Lurretik gorantz hegan egin eta goitik behera hegalei emanez kantari jaisten da lurrera. Hegaldi xeber honen bukaera lurrean edo gorune txiki batean gertatzen da. Eta horrek, hain zuzen ere ud-txirtatik (*Anthus trivialis*-etik) bereizten du, azken honek zuhaitzean hasi eta bertan bukatzen baitu kantua. Alaudido batzuk ere antzeko hegaldia izan dezakete araldian, baina kantuen ezberdintasunekin batera, familia honetako hegaztien hegal handiak txirtak ezberdinak dira. Kumaldia apirila-uztaila bitartean burutzen dute. Habia, goroldio,

belar eta ileekin egiten dute eta lurrean bertan edo arroka-tarteko ezkutuko zirrikituren batean kokaturik egoten da. Honen barruan 21 mm-ko eta arrez marrazturiko 4-5 arrautza zuriska jartzen dituzte. Emeak 2 astez berotu ondoren txitoak jaiotzen dira, eta arrak lagunduta beste 2 astez bazkatzen dituzte kumeak, hauek kozkortu eta habia utzi arte. Txito hauek habia uzten dutenerako helduen antza izaten dute eta 15 egun beranduago, gurasoen babesa utzi eta bizitzari bakarrik egin behar izaten diote aurre. Urte batekin hasten dira

goalderantz goazelarik, alde subkantalear eta mediterraniararen 1.200 metrotik gora besterik ez dugu topatuko. Espezie paleoartiko honek Europan duen banaketari dagokionez, alde boreallean, eta alde epel eta mediterranioko mendietan agertzen da: Pirinioetan, Mendikatea Zentralkan, Alpeetan, Apeninoetan eta Mendi balkanikoetan.

Noizean behin kolore arreak dituen txori hauetako bat landuta, ea gai garen identifikazio zaileko espezie hauen ezagutza menperatzeko. Baina... lasai, neronek ikusitako azken "txori arrea"



Mendietako larreetan, bizi den arren, neguan hezeguneetara jaisten da.

kumatzen eta 9 urteko biziraupen maximoa dute. Mendi-txirtak bikoteka edo familia-taldeetan elkartzen dira eta neguan, talde txikitik ere bai. Bestalde, lurrean gora eta behera, intsektuak, moluskuak, krustazeoak eta haziren baten bila oinez bizi-bizi ibiltzen dira. Euskal Herrian, eskualde menditsuetakoa eta subalpetar eta alpetarrean espezie ugarietakoa da. Altitudeari dagokionez 1.000 m-tik gora agertzen da eta Pirinio aldean 2.000 m-tik gora ere igotzen da. Atlantikoko eskualdean 700 metrora jaitso daiteke habitat egokirik izanez gero. He-

ezin izan nuen inondik ere ezagutu, eta mendi-txirta ez zela besterik ez nuen ziurtatzerik izan. Hasteko bada zer edo zer behintzat!



\* **Biologoa**